

EUSKALTEL SA-REN IKUSKARITZA ETA KONTROL BATZORDEAREN ARAUDIA

euskaltel

ATARIKO KAPITULUA

1. artikulua. Batzordearen izaera

Ikuskaritza eta Kontrol Batzordea (“**Batzordea**” edo “**Ikuskaritza eta Kontrol Batzordea**”) Euskaltel SAREN (“**Sozietatea**”) Administrazio Kontseiluak osatzen du, Sozietatearen Estatutuen 64. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Organo horrek informazio- eta kontsulta-izaera du, ez du zuzendaritza-funtziorik, eta informazioa, aholkua eta proposamenak emateko gaitasuna du bere jarduera-esparruan. Sozietatearen Estatutuetan, Administrazio Kontseiluaren Araudian eta Ikuskaritza eta Kontrol Batzordearen Araudi honetan (“**Araudia**”) aurreikusitakoaren mende dago.

2. artikulua. Araudiaren xedea

Araudi honen xedea da Batzordearen jarduera-printzipioak zehaztea, bai eta haren antolaketaren eta funtzionamenduaren oinarritzko arauak ere.

3. artikulua. Onarpena eta aldaketa

1. Administrazio Kontseiluak, hartako lehendakariak edo kontseilarien herenak (1/3) proposatu behar du Araudia, eta Administrazio Kontseiluko kideen gehiengo osoaren adostasunez onartu behar da. Onartzen den datan jarriko da Araudia indarrean.
2. Araudiaren aldaketak Batzordeak, hartako lehendakariak edo kideen herenak (1/3) proposatu behar ditu, eta Batzordeko kideen gehiengo osoaren adostasunez onartu behar dira. Ondoren, hala badagokio, Administrazio Kontseiluak berretsi behar ditu. Berresten diren datan jarriko dira aldaketak indarrean.

I. KAPITULUA. EREMUA ETA FUNTZIOAK

4. artikulua. Eskumen-esparrua

Batzordearen funtzioak Batzordeak berak bete behar ditu, bai Sozietateari dagozkionak, bai bere taldea osatzen duten mendeko sozietatei dagozkienak.

5. artikulua. Batzordearen funtzioak

1. Batzordearen zeregin nagusia da Administrazio Kontseiluari laguntzea, hura informatzea eta hari proposamenak egitea, Sozietatearen Estatutuek, Administrazio Kontseiluaren Araudiak eta Araudi honek une bakoitzean esleitzen dizkieten arloetan.
2. Administrazio Kontseiluak eta araudi aplikagarriak une oro beste edozein zeregin esleibadiezaiokete ere, Batzordeak oinarritzko funtzio hauek bete behar ditu gutxienez:
 - (i) Akziodunen Batzar Nagusiari jakinaraztea akziodunek bere eskumenekoak diren arloetan planteatzen dituzten gaiak.
 - (ii) Sozietatearen eta haren Taldearen barne-kontrolaren eraginkortasuna gainbegiratzea, bai eta arriskuak kudeatzeko dituen sistemak ere, arrisku fiskalak barne.
 - (iii) Kanpoko ikuskariekin aztertzea ikuskapenean zehar barne-kontrolerako sisteman hautematen diren ahulezia esanguratsuak.

- (iv) Finantza-informazio arautua egiteko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.
- (v) Administrazio Kontseiluari proposatzea, hark Akziodunen Batzar Nagusira eramanean, kanpoko kontu-ikuskaria izendatzea, berrautatzea edo ordeztzea araudi aplikagarriari jarraikiz, bai eta hura kontratatzeke baldintzak proposatzea ere, eta aldizka harengandik informazioa jasotzea ikuskaritza-planari eta haren gauzatzeari buruz, eta haren independentzia zaintzea bere funtzioak egiten dituenean.
- (vi) Sozietatearen barne-ikuskaritzaren jarduera gainbegiratzea.
- (vii) Kanpoko kontu-ikuskariekin harremanetan egotea haien independentzia arriskuan jar dezaketenean gaiei buruzko informazioa jasotzeko, Batzordeak azter dezanean, bai eta kontu-ikuskaritzaren garapen-prozesuarekin zerikusia duten beste edozein gaiari buruzkoa eta kontu-ikuskaritzaren legedian eta ikuskaritza-arauetan aurreikusitako komunikazioei buruzkoa jasotzeko ere.

Nolanahi ere, urtero jaso behar dute kanpoko ikuskariengandik erakunde honi zuzenean edo zeharka lotutako erakundearekiko edo erakundeekiko independentziaren idatzizko baieztapena, baita ikuskari edo sozietate horiek edo haiei kontu-ikuskaritzari buruzko legedian aurreikusitakoaren arabera lotutako pertsonak edo erakundeak erakunde hauei emandako edozein motatako zerbitzu gehigarriari buruzko informazioa ere.

- (viii) Urtero, kontu-ikuskaritzaren txostena igorri baino lehen, txosten bat igortzea, non adierazi behar baita kanpoko ikuskarien independentziari buruzko iritzia eta laburbildu behar baitira Batzordearen jarduerak. Nolanahi ere, txosten horrek iritzia eman behar du aurreko atalean aipatzen diren lege-ikuskaritza ez beste zerbitzu gehigarriari buruz —zerbitzuak banaka nahiz batera aintzat hartuta—, independentzia-araubideari edo ikuskaritza arautzen duen araudiari dagokionez.
- (ix) Administrazio Kontseilua egin baino lehen, legean, Estatutu Sozialetan eta Administrazio Kontseiluaren Araudian aurreikusitako gaien berri ematea, eta, zehazki, hauen berri ematea: (i) Sozietateak aldi-aldi plazaratu behar duen finantza-informazioa; (ii) asmo berezia duten edo egoitza zerga-paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan duten erakundeetan partaidetzak sortzea edo erostea; (iii) lotura duten aldeekin egindako eragiketak; eta (iv) Sozietateak egiteko asmoa duen egitura- eta korporazio-aldaketen eragiketen baldintza ekonomikoak eta kontabilitate-eragina, eta, batez ere, proposameneko truke-ekuaziorakoak.

3. Bereziki, eta aurreko atalari orokortasunik kendu gabe, funtzio hauek dagozkio Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeari.

- (i) Informaziorako eta barne-kontrolerako sistemei dagokienez:

- a) Sozietateari eta, hala badagokio, taldeari buruzko finantza-informazioa egiteko prozesua eta informazio horren osotasuna gainbegiratzea, eta berrikustea arau-baldintzak betetzen direla, baterakuntza-perimetroa behar bezala mugatuta dagoela eta kontabilitate-irizpideak zuzen aplikatzen direla.
 - b) Urteko kontuak aztertzea ekitaldi ekonomiko bakoitza amaitzen denean, kanpoko ikuskarien iritzi-zirriborroa aztertzea, haiekin urteko kontuen eta ikuskaritza-txostenaren edukiaz hitz egitea, eta Administrazio Kontseiluari gomendioak aurkeztea urteko kontuak egiteko.
 - c) Aldian-aldian, barne-kontrolerako eta arriskuak kudeatzeko sistemak berrikustea, arrisku nagusiak behar bezala identifikatu, kudeatu eta ezagutzera eman daitezten.
 - d) Barne-ikuskaritzaren funtzioaren independentzia eta eraginkortasuna zaintzea; barne-ikuskaritzako saileko arduraduna hautatzea, izendatzea, berrautatzea eta kargutik kentzea proposatzea; sailaren aurrekontua proposatzea; aldian-aldian, haren jardueri buruzko informazioa jasotzea; eta egiaztatzea goi-zuzendaritzak aintzat hartzen dituela bere txostenen ondorioak eta gomendioak.
 - e) Mekanismo bat ezartzea eta gainbegiratzea, langileek aukera izan dezaten Sozietatean hautematen dituzten eta garrantzia izan dezaketen irregulartasunak, batez ere finantzarioak eta kontabilitatekoak, konfidentzialki eta, egokitzat joz gero, modu anonimoan jakinarazteko.
- (ii) Kanpoko ikuskariari dagokionez:
- a) Kontseiluari aurkeztea kanpoko ikuskaria hautatzeko, izendatzeko, berrautatzeko eta ordeztzeko proposamenak, bai eta hura kontratatzeko baldintzak ere.
 - b) Ziurtatzea kanpoko ikuskariak bilera bat izaten duela urtero Administrazio Kontseiluaren bilkurarekin, hari jakinarazteko egindako lana eta kontabilitate-egoeraren eta Sozietatearen arriskuen bilakaera.
 - c) Aldizka kanpoko ikuskariarengandik jasotzea ikuskaritza-planari eta haren emaitzei buruzko informazioa, eta egiaztatzea goi-zuzendaritzak aintzat hartzen dituela haren gomendioak.
 - d) Kanpoko ikuskariaren independentzia ziurtatzea, eta, horretarako: (i) ziurtatzea Sozietateak gertaera garrantzitsu gisa jakinarazten diola Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari ikuskaria aldatu dela, eta, horrekin batera, adierazpen bat helarazten diola kargua uzten duen ikuskariarekiko desadostasun posiblei buruz eta, izan badira, haien edukari buruz; (ii) ziurtatzea Sozietateak eta ikuskariak errespetatzen dituztela ikuskaritzakoak ez diren zerbitzuei buruz indarrean dauden arauak, eta, oro har, ikuskarien independentzia ziurtatzeko ezarritako gainerako arauak; eta (iii), kanpoko ikuskariak dimisioa ematen badu, aztertzea zer egoerak eragin duten dimisio hori.

- f) Erraztea talde bateratuko ikuskariak hura osatzen duten enpresetako ikuskaritzen ardura har dezan.
- (iii) Arriskuen politikari eta kudeaketari dagokienez:
- a) Sozietateak dituen hainbat motatako arriskuak identifikatzea (operatiboak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, ospeari dagozkionak), finantzarioen edo ekonomikoen barnean direla pasibo gertagarriak eta balantzetik kanpoko beste arrisku batzuk.
 - b) Sozietateak onargarriztat jotzen dituen arrisku-mailen finkapena identifikatzea.
 - c) Identifikatutako arriskuen eragina arintzeko aurreikusitako neurriak identifikatzea, arrisku horiek gertatzen badira.
 - d) Arrisku horiek (pasibo gertagarriak edo balantzetik kanpoko arriskuak barne) kontrolatzeko eta kudeatzeko erabiliko diren informaziorako eta barne-kontrolerako sistemak identifikatzea.
- (iv) Kotizatutako sozietateen berezko betebeharreri dagokienez:
- Administrazio Kontseiluari haiei buruzko informazioa ematea, Administrazio Kontseiluak dagozkion erabakiak hartu baino lehen:
- a) Kotizatua izateagatik Sozietateak aldizka plazaratu behar duen finantza-informazioa. Ikuskaritza Batzordeak ziurtatu behar du seihileko finantza-txostenak eta bitarteko kudeaketa-adierazpenak urteko kontuak egiten diren kontabilitate-irizpide berekin egiten direla, eta, horretarako, aztertu behar du ea egoki den kanpoko ikuskariak seihileko finantza-txostenak era mugatuan berrikustea.
 - b) Asmo berezia duten edo egoitza zerga-paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan duten erakundeetan partaidetzak sortzea edo erostea, bai eta konplexuak izateagatik taldearen gardentasuna urritu dezaketen antzeko beste edozein transakzio edo eragiketa ere.
 - c) Lotutako eragiketak, une oro aplikatu dakiekeen legediak eragiketa horiek definitu ahala.
 - d) Sozietateak egiteko asmoa duen egitura- eta korporazio-aldaketen eragiketen baldintza ekonomikoak eta kontabilitate-eragina, eta, batez ere, proposameneko truke-ekuaziorakoak.
- (v) Sozietatearen korporazio-gobernuaren betebeharreri dagokienez:
- a) Sozietatearen korporazio-gobernuaren barne-araudia aldizka berrikustea, eta Administrazio Kontseiluari proposatzea Sozietatearen garapenari eta etengabeko hobekuntzari lagundu diezaieketen aldaketak eta eguneratzeak, Administrazio Kontseiluak onar ditzan edo Akziodunen Batzar Nagusiari aurkeztu diezazkion —dagokionaren arabera—.

- b) Sozietatearen korporazio-gobernuaren estrategia bultzatzea. Lege-errekerimenduak, Sozietate barneko jokabide-kodeak eta Sozietatearen korporazio-gobernuaren barne-araudia betetzen direla gainbegiratzea.
- c) Aldizka ebaluatzea ea egokia den Sozietatearen korporazio-gobernuaren sistema, bere xedea, hots, interes soziala sustatzea, bete dezan, eta kontuan izan ditzan, dagokionaren arabera, gainerako interes-taldeen interes zilegiak.
- d) Sozietateak korporazioaren erantzukizun sozialaren eta jasangarritasunaren arloetan duen jarduera ezagutzea, bultzatzea, bideratzea eta gainbegiratzea; zaintzea jarduera horren xedea dela balioa sortzea; eta Administrazio Kontseiluari edo, hala badagokio, Batzorde Exekutiboari jarduera horren berri ematea.
- e) Korporazioaren gizarte-erantzukizunaren strategiaren eta jardunbideen segimendua egitea, eta ebaluatzea zenbateraino betetzen diren.
- f) Sozietateak korporazioaren ospearen arloan duen jarduera ezagutzea, bultzatzea, bideratzea eta gainbegiratzea, eta Administrazio Kontseiluari edo, hala badagokio, Batzorde Exekutiboari jarduera horren berri ematea.
- g) Akziodunekiko eta inbertitzaileekiko (akziodun txikiak eta ertainak barne) komunikazio- eta harreman-estrategia gainbegiratzea.
- h) Interes-taldeen harreman-prozesuak gainbegiratzea eta ebaluatzea.
- i) Enpresaren arrisku ez-finantzarioei dagokien guztia ebaluatzea, hala nola arrisku operatiboak, teknologikoak, legezkoak, sozialak, ingurumenekoak, politikoak eta ospeari dagozkionak.
- j) Informazio ez-finantzarioa eta aniztasunari buruzko informazioa emateko prozesua koordinatzea, araudi aplikagarriari eta nazioarteko erreferentziako estandarrei jarraikiz.
- k) Sozietatearen Korporazio Gobernuaren urteko txostenaren berri ematea hura onartu baino lehen; horretarako, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeak txosten horretan dauden eta bere eskumenekoak diren atalei buruz egin dituen txostenak bildu behar dira.

II. KAPITULUA. OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA

6. artikulua. Osaera

1. Batzordea kanpoko kontseilariak (hau da, dominikalek eta independenteek) osatu behar dute, gutxienez hiruk (3) eta gehienez bostek (5). Batzordeko kide gehienek kontseilari independente izan behar dute.
2. Muga horien barruan, Batzordeak, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen bitartez, bere kideen kopurua aldatzeko proposamena aurkeztu diezaiolke Administrazio Kontseiluari, Administrazio Kontseilua egokiagoa izan dadin eraginkortasunez funtzionatzeko.

7. artikulua. Izendapena

1. Batzordeko kideak Administrazio Kontseiluak izendatu behar ditu kanpoko kontseilarien artetik, Izendapen eta Ordainketa Batzordearen proposamenez.
2. Administrazio Kontseiluak saiatu behar du Batzordeko kideek, eta bereziki hartako lehendakariak, ezagutzak eta esperientzia izan ditzaten kontabilitatearen, ikuskaritzaren edo arriskuen kudeaketaren alorretan.

8. artikulua. Karguen banaketa

1. Batzordeak lehendakari bat hautatu behar du Batzordeko kide diren kontseilari independenteen artetik.
2. Era berean, Batzordeak idazkari bat izendatu behar du; idazkaria Batzordeko kideetako bat izan daiteke, edo Administrazio Kontseiluko idazkaria edo idazkariordea.

9. artikulua. Idazkariaren zereginak

Zeregin hauek ditu idazkariak:

- (i) Batzordearen dokumentazioa gordetzea, akta-liburuetan Batzordearen saioren nondik norakoak islatzea, Batzordeak hartutako akordioen fede ematea, eta Batzordearen jardueren legezkotasun formala eta materiala zaintzea.
- (ii) Batzordearen aktak eta hark hartutako akordioak ziurtatzea. Ziurtagiriak Batzordeko idazkariak egin eta sinatu behar ditu, edo, hura ez badago, Batzordeko kide gazteenak, lehendakariaren oniritziarekin, edo, hura ez badago, Batzordeko kide zaharrenak.
- (iii) Batzordeko lehendakariaren jarraibideei jarraikiz, Batzordeak gainerako organoekin, zuzendaritzekin edo Araudi honetan aipatzen diren hirugarrenekin dituen harremanak bideratzea eta koordinatzea.
- (iv) Araudi honetan esleitutako gainerakoak, baita Sozietatearen Estatutuetan eta, hala badagokio, Administrazio Kontseiluaren Araudian araututakoak ere.

10. artikulua. Iraupena

1. Batzordeko kideak gehienez lau (4) urterako izendatzen dira, eta berrauta daitezke beste behin edo gehiagotan, gehienezko iraupen bera duten denboraldietarako.
2. Batzordeko lehendakariaren kargua lau (4) urtez bete behar da gehienez, eta, denboraldi horren buruan, kargu hori bete duen kontseilaria ezin da lehendakari berrautatu hark kargua utzi eta urtebete (1) pasatu arte, hargatik eragotzi gabe Batzordeko kide izaten jarraitzea.
3. Batzordeko idazkariaren kargua lau (4) urtez bete behar da gehienez, eta berrauta daiteke beste behin edo gehiagotan, gehienezko iraupen bera duten denboraldietarako.

11. artikulua. Kargua uztea

Batzordeko kideek beren kargua utzi behar dute:

- (i) Sozietateko kontseilari izateari uzten badiote.
- (ii) Kanpoko kontseilari izateari uzten badiote.
- (iii) Administrazio Kontseiluak hala adosten badu.
- (iv) Kontseilariak Batzordeko kide izateari uzten badio.

Batzordeko idazkariak, Administrazio Kontseiluko kide ez den idazkaria edo idazkariordea baldin bada, bere kargua utzi behar du Administrazio Kontseiluko idazkari edo idazkariorde izateari uzten badio.

12. artikulua. Saiok

1. Batzordeak gutxienez bi (2) aldiz eta gehienez lau (4) aldiz bildu behar du urtean, hirugarrenei bidali behar zaien informazio ekonomiko eta finantzarioa eta kudeaketa-informazioa berrikusteko, hura aurkeztu baino lehen, eta lehendakariak bilerara deitzen duen bakoitzean, egokia delako bere funtzioak ondo bete daitezzen.
2. Nolanahi ere, lehendakariak Batzordera deitu behar du Administrazio Kontseiluak, edo hartako lehendakariak, txosten bat bidaltzea edo proposamenak hartzea eskatzen duen bakoitzean, edo Batzordeko kideen herenak eskatzen duenean.

13. artikulua. Deialdia

1. Batzordearen deialdia lehendakariak edo, lehendakariaren aginduz, idazkariak egin behar du, gutunez, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz.
2. Presazko saioen kasuan izan ezik, gutxienez bost (5) egun balioduneko aurrerapenarekin egin behar da deialdia. Deialdian, betiere, saioko gai-zerrendak agertu behar du, eta behar bezala laburbildutako eta prestatutako informazio garrantzitsua ere eman behar da.
3. Ez dago Batzorderako deirik egin beharrik hango kide guztiak bertan izanik haiek bilera egitea onartzen badute aho batez.
4. Batzordearen bilerei aplikatu behar zaie Sozietatearen Estatutueta eta Administrazio Kontseiluaren Araudian aurreikusitakoa, ezohiko saioetarako eta bozketak egiteko saioetarako idatziz eta saiorik gabe deialdia egiteko aukerari dagokionez.

14. artikulua. Osaera

1. Batzordeak egoitza sozialean edo deialdian adierazitako lekuan bildu behar du.
2. Batzordearen osaera baliozkoa izango da bilerara haren kideen erdia —bertaratuta edo ordezkatuta— joaten bada. Batzordea osatu ondoren norbait falta bada, horrek ez dio baliozkotasunik kenduko Batzordearen bilerari.
3. Batzordearen bilerak egin daitezke bideokonferentziaz edo telefono bidezko multikonferentziaz ere, eta Batzordearen saioa deialdian egoitza nagusi gisa agertzen den lekuan egin dela joko da. Ez bada adierazi egoitza hori zein den, bilerako buru den kontseilaria dagoen lekua dela joko da.

4. Batzordeko edozein kidek eman diezaioke bere ordezkaritza, idatziz eta bilera bakoitzerako bakarrik, beste kide bati, eta lehendakariari edo Batzordeko idazkariari jakinarazi behar dio aurreko artikuluko lehenengo atalean deskribatutako edozein bidez.
5. Lehendakariak eztabaida zuzendu behar du, hitza eman behar du, eta parte-hartzeak itxi behar ditu iruditzen zaionean gai bat nahikoa eztabaidatu dela. Bozketak eskua altxatuta egin behar dira.
6. Lehendakaria bertan ez bada, gaixo badago edo ezinezkoa bazaio saioa zuzentzea, antzinasun handieneko batzordekideak zuzenduko du saioa, eta, bi kidek edo gehiagok antzinasun bera izanez gero, haietatik zaharrenak. Idazkaria bertan ez bada, gaixo badago edo ezinezkoa bazaio idazkari-lanak egitea, antzinasun txikiena duenak jardungo du idazkari, eta, bi kidek edo gehiagok antzinasun bera izanez gero, haietatik gazteenak.

15. artikulua. Akordioak

1. Bilerara joan diren kideen gehiengo osoz hartu behar dira erabakiak. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa izango du.
2. Batzordearen eztabaida eta erabakiek aktan jasoak geratu behar dute, eta akta lehendakariak eta idazkariak sinatu behar dute, edo haien ordezkariak dihardutenek. Batzordeak aktak onartu behar ditu bileraren amaieran edo hurrengo bileraren hasieran.

16. artikulua. Interes-gatazka

Batzordearen bileretan jorratu beharreko gaiak zuzenean eragiten badiete batzordekideren bati edo hari lotutako pertsoneri, eta, oro har, kide hori interes-gatazka batean suertatzen bada, kide horrek bileratik atera behar du erabakia hartu arte, eta, quoruma eta gehiengoak zenbatzean, kide hori kendu egin behar da Batzordeko kideen kopurutik, hizpide den gaiari dagokionez.

17. artikulua. Bertaratzea

1. Lehendakariak edo Batzordeko edozein kide bati (2) eskatuta, Batzordearen bileretara joan daiteke Administrazio Kontseiluko edozein kide, Sozietateko edo taldeko edozein zuzendari edo langile eta partaidetzako sozietateetako administrazio-organotako edozein kide, baldin eta haren izendapena Sozietateak proposatu badu, betiere legeak ez badu hori eragozten.
2. Batzordeak edozein unetan eska dezake bere bileretan kanpoko ikuskaria egotea, edo, hala badagokio, kanpoko aholkulariren bat.

III. KAPITULUA. IKUSKARITZA- ETA KONTROL-BATZORDEAREN HARREMANAK

18. artikulua. Akziodunen Batzar Nagusiarekiko harremanak

1. Batzordeak jakinaren gainean eduki behar du Akziodunen Batzar Nagusia akziodunek bere eskumenekoak diren arloei buruz planteatzen dituzten gaien inguruan.

2. Aurreko paragrafoan adierazitakoa garatuz, Batzordeak urteko txosten bat egin behar du Batzordearen jardueri buruz, eta txosten hori akziodunen eskura jarri behar da Administrazio Kontseiluak Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiko deialdian onartu ondoren.

19. artikulua. Administrazio Kontseiluarekiko harremanak

Batzordeko lehendakariak Batzordearen jardueraren berri eman behar dio Administrazio Kontseiluari Batzordearen bilera bakoitzaren ondoren Administrazio Kontseiluak egiten duen lehenengo saioan.

20. artikulua. Sozietateko barne-ikuskaritzarekiko harremanak

1. Sozietateak barne-ikuskaritzako sail bat izan behar du. Barne-ikuskaritzako sail hori Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeak gainbegiratu behar du, eta sozietate barneko informazio- eta kontrol-sistemek ondo funtzionatzen dutela zaindu behar du. Hala badagokio, Administrazio Kontseiluak Batzordeari proposatu behar dio barne-ikuskaritzako zuzendaria hautatzea, izendatzea, berrautatzea edo kargutik kentzea.
2. Hala badagokio, Batzordeak bere egin behar du proposamena, eta, Izendapen eta Ordainketa Batzordeak txostena egin ondoren, Administrazio Kontseiluari aurkeztuko dio proposamena, hark onar dezan.
3. Sozietateko barne-ikuskaritzako zuzendariaren zeregin nagusia da Batzordeari honako gai hauek jakinaraztea, haiei buruzko aholkua ematea eta haien berri ematea:
 - (i) Oro har onartutako kontabilitate-printzipioak aplikatzea, baita haiei dagokienez kontabilitatean gerta daitezkeen edozein aldaketa esanguratsu ere.
 - (ii) Balantzeari eta Sozietatearen jarduera-esparru funtzionalei lotutako arriskuak, haiek identifikatuz, neurtuz eta kontrolatuz.
 - (iii) Sozietateak hirugarrenekin egiten dituen transakzioak, baldin eta interes-gatazka eragiten badute edo eragiketak partaidetza esanguratsuen jabe diren akziodunekin egiten badira (une bakoitzean legez definitzen diren bezala).
 - (iv) Batzordeak inbertitzaileei eta merkatuko eragileei zein behar duten organismoen aldian-aldian bidaltzen dien finantza-informazioa.
 - (v) Batzordearen beraren jarduerak.
4. Barne-ikuskaritzako zuzendariak bere urteko lan-plana aurkeztu behar dio Ikuskaritza eta Kontrol Batzordeari. Era berean, Batzordeari jakinarazi behar dizkio barne-ikuskapena egitean gerta daitezkeen gorabeherak, eta, ekitaldi bakoitzaren amaieran, jarduera-txosten bat aurkeztu behar dio Batzordeari. Barne-ikuskaritzako saila Administrazio Kontseiluko lehendakariaren mende dago funtzionalki, edo, exekutiboa bada, Ikuskaritza Batzordeko lehendakariaren mende.
5. Barne-ikuskaritzako zuzendaria Batzordearen eta Sozietateko gainerako antolaketaren arteko komunikazio-organo arrunta da, eta hura arduratzen da saioetan behar den informazioa prestatzeaz, eta saioetara joan behar du Batzordeari egoki irudituz gero.

21. artikulua. Kanpoko ikuskariarekiko harremanak

1. Batzordeak Administrazio Kontseiluari proposatu behar dio kanpoko ikuskaria izendatzea, Akziodunen Batzar Nagusiak eztabaida dezan.
2. Batzordeak ezin dio proposatu Administrazio Kontseiluari, ezta Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusira eraman ere, ikuskaritza-enpresen izendapena, baldin badaki enpresa horiek (i) bateraezintasun-kausaren bat dutela ikuskaritzari buruz indarrean dagoen legediaren arabera, edo (ii) haiei ematea aurreikusten duen zerbitzu-sariak, kontzeptu guztietakoak, azken ekitaldian izan dituen diru-sarrera totalen ehuneko bost (% 5) baino handiagoak direla.
3. Batzordeak saiatu behar du kanpoko ikuskariak urtean gutxienez bi (2) aldiz egin dezan agerraldia Batzordean, bata hark bere lana hasi aurretik eta bestea lanaren amaieradaren inguruan, bere lanaren nondik norakoen berri eman dezan eta bere ondorioak aurkeztu ditzan. Horrez gain, Batzordeak edozein unetan eska diezaioke ikuskariari bere saioetara joateko.
4. Araudi honen 5.3 (ii) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Batzordeak kanpoko ikuskariari eskatu behar dio baieztatu dezala urtero idatziz independentea dela Sozietatearekiko eta bere taldeko sozietateekiko, bai ikuskaritza-enpresa osoarekiko, bai lantaldea osatzen duen kide bakoitzarekiko.
5. Kanpoko ikuskariak Sozietateari edo bere taldeko edozein sozietateri kontu-ikuskaritza ez beste zerbitzu batzuk eman diezazkion, Batzordeak horretarako baimena eman behar du, ikuskari horrek alde aurretik baieztatu ondoren egin behar izan dezakeen lanak errespetatzen dituela ikuskaritza ez beste zerbitzuak emateari buruz indarrean dauden arauak. Horri dagokionez, kanpoko ikuskariak urtero eman behar dio Batzordeari taldeari eman dizkion edozein motatako zerbitzu gehigarrien berri.
6. Batzordeak jakinaren gainean egon behar du Sozietatean edo taldeko sozietateetan ikuskaritza-enpresatik datozen langile berriak sartzen direnean, baita ikuskaritza-enpresan sartzen den taldetik datozen langile berriak sartzen direnean ere.

22. artikulua. Sozietateko eta haren taldeko zuzendaritzarekiko harremanak

1. Batzordeak, lehendakariaren bidez, bil dezake informazioa eta eska dezake Sozietateko eta haren taldeko edozein zuzendari edo langileren lankidetzak. Horretarako, Sozietateko zuzendariak edo langileak nahitaez joan behar dute Batzordearen saioetara, eta beren lankidetzak eta daukaten informazioa eskaini behar diote hori eskatzen zaienean.
2. Nolanahi ere, Batzordeko lehendakariak Administrazio Kontseiluko lehendakariari eta kontseilari delegatuari —baldin badago— jakinarazi behar dizkie Batzordera joateko eskaerak, Batzordeak berak eginak.

IV. KAPITULUA. BATZORDEAREN AHALMENAK, AHOLKULARITZA ETA BATZORDEKIDEEEN BETEBEHARRAK

23. artikulua. Ahalmenak

Batzordeak, Administrazio Kontseiluko idazkariaren bitartez, Sozietateak Batzordearen eskumenekoak diren gaiet buruz duen eta bere zereginak betetzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio edo dokumentazio osora jo dezake libreki.

24. artikulua. Aholkularitza

1. Bere zereginetan laguntza jasotzeko, Batzordeak eska dezake lege-aholkulariak, kontulariak, finantzariak edo bestelako adituak kontrata daitezela, Sozietatearen kargura.
2. Kargua betetzean sortzen diren garrantzi eta konplexutasun handiko arazo jakinei buruzkoa izan behar du nahitaez enkarguak.
3. Laguntza-eskaera Sozietateko Administrazio Kontseiluko lehendakariari egin behar zaio, eta hark aurka egin diezaioke, baldin eta iruditzen bazaio:
 - (i) ez dela beharrezkoa Batzordeari esleitutako zereginak behar bezala betetzeko;
 - (ii) haren kostua ez dela arrazoizkoa arazoaren garrantzia eta Sozietatearen aktiboak eta diru-sarrerak kontuan hartuta;
 - (iii) jasotzen den laguntza teknikoa ondo eman dezaketela Sozietateko adituek eta teknikariek; edo
 - (iv) arriskuan jar litekeela esku artean ibili behar den informazioaren konfidentziasuna.

25. artikulua. Batzordekideen betebeharrak

1. Batzordekideek gainerako erakundearen irizpideekiko eta ekintzarekiko independentziaz jokatu behar dute, eta beren lana ardura eta gaitasun profesional handienarekin egin behar dute.
2. Batzordekideek, batzordekide diren aldetik, Administrazio Kontseiluaren Araudian aurreikusita dauden kontseilariaren betebeharrak guztiak bete behar dituzte, baldin eta Batzordeak betetzen dituen zereginetara aplikatu behar bazaizkie.

V. KAPITULUA. BETETZEA, ZABALKUNDEA ETA INTERPRETAZIOA

26. artikulua. Betetzea eta zabalkundea

1. Batzordekideek zein Administrazio Kontseiluko gainerako kideek —eragiten dieten arloetan— nahitaez ezagutu eta bete behar dute Araudi hau.
2. Administrazio Kontseiluko idazkariak Araudi honen ale bana eman behar die kontseilari guztiei.

3. Horrez gain, Batzordeak zaindu behar du betetzen dela Araudia, eta neurri egokiak hartu behar ditu Araudia behar bezain zabaldua egon dadin erakundearen gainerakoan.

27. artikulua. Interpretazioa

1. Araudia interpretatzean, kontuan hartu behar dira une bakoitzean indarrean dauden lege-arauak, Sozietatearen Estatutuetan eta Administrazio Kontseiluaren Araudian dauden eta aplikatu behar zaizkion xedapenak, eta organismo arautzaileek eskatuta egindako gobernu onaren printzipioak eta gomendioak.
2. Araudi hau interpretatzeari lotutako edozein zalantza edo desadostasun gehiengoak ebatzi behar du Batzordean, eta, hura egon ezean, Batzordeko lehendakariak, Administrazio Kontseiluak horretarako izendatu dituen pertsonak lagunduta, kasu bada. Interpretazioaren berri eta sortutako zalantza edo desadostasunen ebazpenaren berri eman behar zaio Administrazio Kontseilari.
3. Berariazko araurik egon ezean, Batzordeari aplikatu behar zaizkio, haren izaerarekin bateraezinak ez badira, Administrazio Kontseiluaren Araudiak haren funtzionamenduari buruz dituen xedapenak, eta, bereziki, hauei buruzkoak: bileretarako deialdia, ordezkaritza beste kontseilari bati ematea, osaera, deitu gabeko saioak, akordioak egitea eta akordioak hartzeko araubidea, idatzizko eta saiorik gabeko bozketak, eta bileretako aktak onartzea.
4. Legeak, Sozietatearen Estatutuek eta Administrazio Kontseiluaren Araudiak lehentasuna izango dute Araudian ezarritakoarekiko kontraesana baldin badago.

28. artikulua. Epeen zenbaketa

Araudi honen xedeetarako, baliodun gisa zenbatuko dira urte naturaleko egun guztiak, hauek izan ezik: larunbatak, igandeak eta Bilbon jaiegun den edozein egun.